

La organización revolucionaria socialista vasca para la liberación nacional vasca, ETA, ya no existe

BOLTXE :: 04/05/2018

En sendos comunicados enviados a los agentes y los ciudadanos ha anunciado su disolución

[Euskara]

ETAk, nazio askapenerako euskal erakunde sozialista iraultzailea, jada ez da existitzen. /

Atzo eta gaur argitaratu diren bi agirietan bere disoluzioa iragarri die erakunde eta herritarrei:

Eragileei bidalitako agiria:

Euskal Herrian, 2018ko apirilaren 16a

Jaun-andre agurgarriak:

Komunikazio honen bidez, Euskadi Ta Askatasunak hartu berri duen erabakia ezagutarazi nahi dizue. Kide guztien artean burutu den barne eztabaidan, ETAk bere zildo historikoa eta funtzioa amaitutzat ematea erabaki du, bere ibilbideari bukaera emanet. Ondorioz, ETAk bere egitura guztiak erabat desegin eta bere ekinbide politikoa bukatutzat jo du.

Horrela, ezker abertzale osoaren estrategia aldaketaren ondorioz, 2010ean abiato zuen prozesua bururaino eraman du ETAk, Euskal Herrian zildo politiko berri bat zabaltzeko asmoz.

Prozesu horretan, Alieteko Konferentzia eta handik hiru egunetara, ETAk iragarri zuen borroka armatuaren bukaera erreferentzia nagusiak izan ziren. Konfrontazio armatuaren aroari bukaera ordenatu, arrazoizko eta eraikitzalea emateko ahalegina izan zen. Zuetako gehienak aukera horren lekuko zuzenak izan zineten eta, zuetako asko, baita bultzatzale sendoak ere. Tamalez, Aietako Adierazpenak ez zuen bidea egiterik izan. Euskal herritarren gehiengoaren nahiarekin bat egin arren, Espainia eta Frantziako estatuek ezinezko bilakatu zuten hasiera-hasieratik.

Hala eta guztiz ere, ETAk aurrera egitea erabaki zuen. Aietako Adierazpenetik eta balizko negoziazio prozesu batetik harago, Euskal Herria izan zuen bere ekimenaren abiapuntu eta helburu. Horrela, ordura arte hartutako konpromisoak bete eta berriak hartu zituen. Bere ekimen esanguratsuenean, ETAk herriari eman zizkion bere armak eta jendarte zibilaren esku utzi zuen armagabetzearen ardura.

Herria da azken erabaki honen hartzaile nagusia ere:

ETA herritik sortu zelako eta herrira itzultzen delako.

Herriaren indarrarekiko konfiantzan oinarritzen delako.

Eta, batez ere, Euskal Herrian eta askatasuna eskuratzeko bidean ekarpema egin nahi duelako.

Izan ere, urteotako erabakiek azken hamarkadetako egoera astindu eta etorkizuna abiapuntu berri batetik eraikitzeko apustua egin du ETAk, ausardia eta ardurarekin.

Erabaki honek ETaren 60 urteko ziklo historikoa ixten du. Ez du gainditzen, ordea, Euskal Herriak Espainia eta Frantziarekin duen gatazka politikoa. Gatazka ez zen ETArekin hasi eta ez da ETaren ibilbidearekin batera bukatu.

Urteotan, gatazka politikoa arrazoizko bidetatik bideratzeko ahalegin ugari egin dira. Negoziazo saio formalak abiatu, ezkutuko elkarrizketak burutu eta hamaika proposamen aurkeztu dira. Ez gara gai izan akordioetara iristeko, ez ETA eta gobernuen artean, ez euskal eragileen artean. Ardura konpartitua da eta ETAk dagokion zatia beregain hartzen du.

Gatazka konpontzeko borondate ezak. batzuetan, eta huts egindako aukerek, bestetan, konfrontazioaren luzapena eragin du eta alde anitzeko sufrimendua areagotu. Lehenago buka zitekeen. Edonola ere, ETAk bere borrokaren ondorioz eragin duen sufrimendua aitortzen du.

Euskal Herria aukera berri baten aurrean dago orain, gatazkaren zikloa behin betiko itxi eta bere etorkizuna denon artean eraikitzeo. Ez ditzagun akatsak errepikatu, ez ditzagun arazoak usteltzen utzi. Hori arazo berrien iturri baino ez litzateke izango.

Urtetako konfrontazioak zauri sakonak utzi ditu eta sendabide egokia eman behar zaie. Batzuk odoletan daude oraino, sufrimendua ez baita iraganeko kontua.

Gutun honen bidez, eta apaltasun osoz, ETAk azken iritzi bat helarazi nahi dizue. Bere aburuz, gatazkaren konponbideak eta Euskal Herriaren eraikuntzak zuen guztion beharra dute, etorkizuna denon ardura delako.

ETAKO militante izandakook, gure aldetik, zeregin horretan murgiltzeko konpromisoa berretsi nahi dugu, gutako bakoitzak egokien irizten dion tokian, betiko arduraz eta zintzotasunaz.

Euskadi Ta Askatasuna
ETA

Herritarrei zuzendutako agiria:

ETAk, nazio askapenerako euskal erakunde sozialista iraultzaileak, bere ibilbidearen bukaeraren berri eman nahi dio Euskal Herriari, ETAko kidegoak Erakundearen ziklo historikoa eta funtzioa amaitutzat jotzeko proposamena berretsi ostean. Erabaki horren ondorioz:

ETAk bere egitura guztiak erabat desegin ditu. ETAk bere ekinbide politikoa bukatutzat jo du. Ez da berriro posizio politikoak adierazten, ekimenak sustatzen eta gainerako aktoreak interpelatzen dituen eragile bat izango. ETAko militante izandakoek beste eremu batzuetan jarraituko diote Euskal Herri bateratu, independente, sozialista, euskaldun eta ez patriarkalaren aldeko borrokari, norberak egokien irizten dion tokian, betiko arduraz eta zintzotasunaz.

Frankismoaren atzaparretan itota eta Estatu jakobinoak asimilatuta, Euskal Herria hilzorian zegoela jaio zen ETA eta orain, 60 urte geroago, bere buruaren jabe izan nahi duen herri bat bizi da, eremu eta arlo ezberdinetan askok egindako lanari esker, belaunaldi ezberdinek egindako borrokari esker.

Euskal Herriaren eta estatuen arteko gatazkan ETAk ziklo bat itxi nahi du, biolentzia politikoaren erabilera ezaugarritu duen aroa, hain zuzen ere. Halere, estatuek tematuta segitzen dute gure herria aurreko ziklo horretan kateaturik mantentzeko, konfrontazio politiko soilean duten ahultasunaz jakitun eta gatazkari bere osotasunean konponbidea emateak ekarriko lukeen egoeraren beldur. ETAk, ordea, ez dio egoera demokratiko horri inongo beldurrik, eta horregatik hartu du Erakundeak erabaki historiko hau, askatasunaren eta bakearen aldeko prozesuak beste bide batetik egin dezan aurrera. 2011n borroka armatua behin betiko uzteko hartutako erabakiaren ondoko segida logikoa da.

Indar metaketa, herri aktibazioa eta ezberdinen arteko akordioak ardatz izango dituen herri prozesu bat eraikitzea izango da aurrerantzean erronka nagusia, bai gatazkaren ondorioei aurre egiteko bai gatazkaren muin politikoari eta historikoari heltzeko orduan. Nazio aitorpena lortzeko erabakitzeko eskubidearen egikaritzea izango da gakoa. Ezkerreko independentismoak Euskal Estatua sortzeko norabidean egingo du lan.

Erdietsi nahi dugun fase historiko berri horren mesedetan hartu dugu, beraz, azken erabakia. ETA herritik sortu zen eta orain herrian urtuko da.

**GORA EUSKAL HERRIA ASKATUTA! GORA EUSKAL HERRIA SOZIALISTA!
JO TA KE INDEPENDENTZIA ETA SOZIALISMOA LORTU ARTE!**

Euskal Herrian, 2018ko maiatzaren 3a

Euskadi Ta Askatasuna

[Castellano]

En sendos comunicados enviados a los agentes y los ciudadanos ha anunciado su disolución

Comunicado remitido a los agentes:

En Euskal Herria, a 16 de abril de 2018

Estimados/as señores/as:

Por medio de esta comunicación os queremos dar a conocer la decisión que Euskadi Ta Askatasuna acaba de tomar. ETA ha decidido dar por terminados su ciclo histórico y su función, dando fin a su recorrido. Por tanto, ETA ha disuelto completamente todas sus estructuras y ha dado por terminada su iniciativa política.

De este modo, como consecuencia del cambio estratégico de toda la izquierda abertzale, ETA ha llevado a término el proceso iniciado en 2010, con la intención de abrir un nuevo ciclo político en Euskal Herria.

En ese proceso las referencias fundamentales han sido la Conferencia de Aiete y el fin de la violencia armada que ETA anunció tres días después. Fue un esfuerzo por conseguir dar a la época de confrontación armada un final ordenado, racional y constructivo. La mayoría de vosotros fuisteis testigos directos de aquella oportunidad y, muchos de vosotros, también fuisteis firmes impulsores. Por desgracia, la Declaración de Aiete no pudo recorrer su camino, a pesar de coincidir con la voluntad de la mayoría de ciudadanos vascos, los estados frances y español lo hicieron imposible desde su mismo inicio.

Sin embargo, ETA decidió seguir adelante. Más allá de la Declaración de Aiete y de un hipotético proceso de negociación, Euskal Herria fue el punto de partida y el objetivo de toda su actividad. Así, cumplió los compromisos tomados hasta entonces y adquirió nuevos compromisos. En su acción más significativa, ETA le dio al pueblo sus armas y dejó en manos de la sociedad civil la responsabilidad de su desarme.

El pueblo es también el receptor fundamental de esta última decisión:

Porque ETA se formó del pueblo y al pueblo vuelve.

Porque se fundamenta en la confianza en la fuerza del pueblo.

Y, sobre todo, porque quiere hacer una aportación en el camino hacia la consecución de la paz y la libertad en Euskal Herria.

En efecto, ETA con las decisiones de estos últimos años ha apostado, con valentía

y responsabilidad, por sacudir la situación de las últimas décadas y por la construcción del futuro desde un punto de partida nuevo.

Esta decisión cierra el ciclo histórico de 60 años de ETA. No supera, en cambio, el conflicto que Euskal Herria mantiene con España y con Francia. El conflicto no comenzó con ETA y no termina con el final del recorrido de ETA.

A lo largo de los años, se han hecho numerosos esfuerzos para encauzar por vías racionales el conflicto político. Se han puesto en marcha sesiones formales de negociación, se han llevado a cabo conversaciones secretas y se han presentado innumerables propuestas. No hemos sido capaces de llegar a acuerdos, ni entre ETA y el gobierno, ni entre los agentes vascos. Es una responsabilidad compartida y ETA asume la parte que le corresponde.

La falta de voluntad para solucionar el conflicto, y las oportunidades perdidas, entre otras, ha provocado el alargamiento del conflicto y ha multiplicado el sufrimiento de las diferentes partes. Comoquiera que sea, ETA reconoce el sufrimiento provocado como consecuencia de su lucha.

Euskal Herria está ahora ante una nueva oportunidad para cerrar definitivamente el ciclo de conflicto y construir su futuro entre todos. No repitamos los errores, no dejemos que los problemas se pudran. Eso no sería más que fuente de nuevos problemas.

Años de confrontación han dejado heridas profundas y hay que darles la cura adecuada. Algunas todavía están sangrando, porque el sufrimiento no es cosa del pasado.

Por medio de esta carta, y con toda humildad, ETA os quiere hacer llegar una última opinión. En su opinión, la solución del conflicto y la construcción de Euskal Herria os necesita a todos vosotros, porque el futuro es responsabilidad de todos.

Los que hemos sido militantes de ETA, por nuestra parte, queremos confirmar nuestro compromiso en embarcarnos totalmente en esa tarea, cada cual desde el lugar que considere más oportuno, con la responsabilidad y honestidad de siempre.

Euskadi Ta Askatasuna
ETA

Comunicado remitido a la ciudadanía:

ETA, organización socialista revolucionaria vasca de liberación nacional, quiere informar al Pueblo Vasco del final de su trayectoria, después de que su militancia haya ratificado la propuesta de dar por concluidos el ciclo histórico y la función

de la Organización. Como consecuencia de esta decisión:

ETA ha desmantelado totalmente el conjunto de sus estructuras. ETA da por concluida toda su actividad política. No será más un agente que manifieste posiciones políticas, promueva iniciativas o interpele a otros actores. Los y las exmilitantes de ETA continuarán con la lucha por una Euskal Herria reunificada, independiente, socialista, euskaldun y no patriarcal en otros ámbitos, cada cual donde lo considere más oportuno, con la responsabilidad y honestidad de siempre.

ETA nació cuando Euskal Herria agonizaba, ahogada por las garras del franquismo y asimilada por el Estado jacobino, y ahora, 60 años después, existe un pueblo vivo que quiere ser dueño de su futuro, gracias al trabajo realizado en distintos ámbitos y la lucha de diferentes generaciones.

ETA desea cerrar un ciclo en el conflicto que enfrenta a Euskal Herria con los estados, el caracterizado por la utilización de la violencia política. Pese a ello, los estados se obstinan en perpetuar dicho ciclo, conscientes de su debilidad en la confrontación estrictamente política y temerosos de la situación que provocaría una resolución integral del conflicto. Por contra, ETA no tiene miedo alguno a ese escenario democrático, y por eso ha tomado esta decisión histórica, para que el proceso en favor de la libertad y la paz continúe por otro camino. Es la secuencia lógica tras la decisión adoptada en 2011 de abandonar definitivamente la lucha armada.

En adelante, el principal reto será construir un proceso como pueblo que tenga como ejes la acumulación de fuerzas, la activación popular y los acuerdos entre diferentes, tanto para abordar las consecuencias del conflicto como para abordar su raíz política e histórica. Materializar el derecho a decidir para lograr el reconocimiento nacional será clave. El independentismo de izquierdas trabajará para que ello conduzca a la constitución del Estado Vasco.

Esta última decisión la adoptamos para favorecer una nueva fase histórica. ETA surgió de este pueblo y ahora se disuelve en él.

**GORA EUSKAL HERRIA ASKATUTA! GORA EUSKAL HERRIA SOZIALISTA!
JO TA KE INDEPENDENTZIA ETA SOZIALISMOA LORTU ARTE!**

En Euskal Herria, a 3 de mayo de 2018

Euskadi Ta Askatasuna